



## ▶▶ 12 HILABETE AURRERA EGITEN

### URTARRILA

#### EUSKALITEKO PERTSONA GUZTIEN ARTEKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA



EUSKALITEKO pertsonok gure hausnarketa estrategikoaz elkarrekin eztabaidatzeko jardunaldi bat egin genuen, eta bertan 2014. urteko jardueren balantzea egin genuen, sektoreari eta inguruneari buruzko informazioa eguneratu, kudeaketaren joerak, produktu eta zerbitzu berriak aztertzeaz gain.

Horrek guztiak beste input bat ekarri zuen Patronatuak urteko lehentasuneko helburuak definitzeko, hau da:

- **Innobideak** – Kudeabide Programan parte hartzea, Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiekin eta SPRIrekin lankidetzan.
- Eusko Jaurlaritzari laguntzen jarraitzea bere **Aurreabide** programaren garapenean, gobernuan bertan Kudeaketa Aurreratua bultzatzeko.
- Kanpo Kontraste eta Ebaluazioko zerbitzuen balioa agerian jartzea, eta **Kudeaketa Aurreratuaren aintzatespena** aitortzeko eskema berria posizionatzea, **Ebaluazioaren kultura hedatuz**.

### OTSAILA

#### KANPO EBALUAZIORAKO PROZESU BERRIA 2015ERAKO

2014an prozesu parte hartzaile bat egin eta gero, zeinean **Ebaluazio Klubeko**, erakunde aurreratu eta jardueraren sektore guztietako pertsona esanguratsuen artean ehunka pertsona inplikatu genituen, kanpo ebaluaziorako zerbitzuaren 2015erako oinarriak aurkeztu ziren.

Ebaluazio prozesu are eraginkorragoa eta efizientea da, arinago prestatu daitekeen dokumentazio errazagoarekin, betiere erakunde eta ebaluatzaileei balio erantsi handiagoa emateko.

[Informazio guztia hemen](#)



## MARTXOA

#### ITP ETA BEGOÑAZPI IKASTOLA SARITU ZIREN BEZEROAGANAKO ORIENTAZIOAN



**ITP-Industria de Turbo Propulsores** eta **Begoñazpi Ikastola** erakundeek irabazi zuten **EUSKALITen bezeroarenganako orientazioaren 400 Klubeko XII. Topaketa**, zeinean beren praktika onak aurkeztu zituzten, 100

pertsona baino gehiagoren aurrean, **Metro Bilbao, Orkli, Spyro-Cti Soft Talde** eta **Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzea ESI**arekin batera.

Praktika irabazleak hautatu zituen epaimahaia EUSKALITEKO Patronatuko hainbat kidek osatu zuten, horien artean egonik ASLE, IDOM eta SPRI, eta praktika on horietan landutako berrikuntza, lortutako emaitzak, eta beste erakunde batzuetan aplikatzeko aukerak baloratu zituzten.

SPRIko Aitor Cobanera eta EUSKALITEKO Presidentea, Jose-txo Hernández, Diplomen banaketan izan ziren.

#### KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIAREN AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburu **Arantxa Tapiak** eta EUSKALITEKO presidentea **Jose-txo Hernandezek** "Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria" izeneko sari berria aurkeztu zuten; saria enpresa kudeaketa aurreratua bultzatzeko Eusko Jaurlaritza egiten ari den apustua osatzera dator.

Aldamenean izan zituzten EUSKALITEKO Patronatuko erakundeak eta lehiarako giltzarri gisa Kudeaketa Aurreratua bultzatzeko konpromisoa duten beste enpresa batzuk, hala nola **VICINAY, SORALUCE, LAZPIUR, EGA MASTER, TUBACEX, VELATIA, IZAR CUTTING TOOLS, ASLE, MONDRAGON, CAF, SENER, IDOM,**



**ITP, EUSKALTEL, OSAKIDETZA, KUTXABANK, IK4 RESEARCH ALLIANCE, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, BBVA, EEE, BILBOKO MERKATARITZA GANBERA, SPRI** eta **INNOBASQUE**.

[Informazio gehiago](#)

#### 5S PRAKTIKA ONEN XIII. TOPAKETA



**5S Praktika Aurreratuaren Urteko Topaketa** egin zen, eta bertan **POLSA-Velatia, Unilever, Bilboko Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoak** eta **Pepsico Iberia** erakundeek beren esperientzia azaldu zuten 5S metodologia eta Lean Manufacturing lantzearen inguruan.

Horrez gain, **5Sen Diplomak** banatu zitzaizkien 2014an 5Sen inguruko kanpo ebaluazioa egin eta 60 puntu baino gehiago lortu dituzten erakundeek:

**SIRIMIRI ZERBITZU SOZIOKULTURALAK** – (BLAS DE OTERO EGUNEKO ARRETA ZENTROA), **FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA - UPV/EHU, BILBOKO INGENIARITZAKO GOI MAILAKO ESKOLA TEKNIKOA - UPV/EHU, EGUMENDI, UNILEVER FOODS INDUSTRIAL ESPAÑA (LEIOAKO PLANTA), COMPAÑÍA DE BEBIDAS PEPSICO, SL (ETXABARRI DIBIÑAKO PLANTA), PROTÓN ELECTRÓNICA, POLSA-AISLANTES SÓLIDOS.**

Eusko Jaurlaritzako Ekintzaitza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizarteko zuzendaria den Aitor Urzelaik itxi zuen ekitaldia.

## APIRILA

### DENBBORA SAREAN PARTE HARTZEA



EUSKALITek hiru jardura ildotan egituratzen du gizartearekin duen konpromisoa: beste erakunde batzuei laguntzea beraien Enpresa Erantzukizun Sozialeko estrategietan (EES); euskal gizartearen arduetako den laneratzearen gaiari irtenbidea ematen laguntzea, eta sozialki erantzulea den erakunde izatera zuzendutako ekintzak egitea, inguru-

menari, euskara sustatzeari, berdintasunari, gardentasunari, Datuak Babesteko Legeari eta abarri lotutako ekintzak eginez.

Horregatik, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako **DenBBora** Sarea ekimenean parte hartzen dugu, gizarte eta lan harremanen kultura bateranzko bidea irekitzeko, denboraren kudeaketan berrikuntza sartzeko eta berdintasun balioak eta lana eta bizitza pertsonala bateratzeko balioak kontuan hartzeko.

Ekimenari atxikitako enpresen artean daude halaber **ARTECHE, ARTEZ, EUSKALTEL, IKEA, MURGIBE, MUTUALIA, TORREZURI, VIRTUAL WARE** eta **ZUBIETXE**, beste erakunde laguntzaile batzuekin batera, hala nola **EMAKUNDE, BILBOKO MERKATARITZA GANBERA, INNOBASQUE** eta **AED**.

### EUSKALIT QUALITY INNOVATION OF THE YEAR SARIAREN KIDE

**EUSKALIT Quality Innovation of the year** sariko Zuzendaritza Batzordeko kide moduan parte hartzera gonbidatu dute (QIY). Lehiaketa 2007an sortu zuen Excellence Finland erakundeak, produktu, prozesu, antolamendu eta abarren berrikuntzak sortzea eta garatzea bultzatzeko.

**Helburua** erakunde eta herrialde parte hartzaileen lehiakortasuna handitzen laguntzea da.



QUALITY  
INNOVATION OF  
THE YEAR

Sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabalik dago dagoeneko, eta urriaren 16an amaituko da. Hemen informazio gehiago

## MAIATZA

### 400 KLUBEKO TALDE AURRERATUEN JARDUNALDIA AIC-AUTOMOTIVE INTELLIGENCE CENTERREN



**400 Klubeko hezkuntza eta industria eta zerbitzu**etako talde aurreratuak, guztira **46 erakunde**, sektorearteko saio batean elkartu ziren **Berrikuntzaren kudeaketa** lantzeko.

Erakunde horiek ibilbide luzea dute kudeaketaren aurrerabidean, eta esperientziak eta praktika onak partekatzeak eta trukatzeko aukera ematen die hobetzen jarraitzeko, zilarrezko edo urrezko Q ziurtagiriaren moduko **aintzatespenak** lortu eta gero.

Saioan izan genituen **BANPROko Tomas Elorriaga**, **BSH Electrodomésticos Españako Emilio Placer** eta **Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Ines Gallego**, eta honekin batera, dinamika bat egin genuen Edward de Bonoren pentsatzeko sei sonbreiruen metodologiarekin.

### ESTATUKO EBALUATZAILEEN TOPAKETA

Estatu osoko **90 ebaluatzaile** baino gehiagok parte hartu dute **CEX-Bikaintasun Zentroetako Ebaluatzaileen III. Topaketa Nazionalean**, praktika onak partekatuz eta world-kafe batean parte hartuz, ebaluatzaile sare nazionalak nola funtzionatzea nahi luketen eta ebaluazio prozesu bat nola diseinatuko luketen aztertzeko, role model enpresak identifikatu ahal izateko.

Gainera, **Rogelio Pozo AZTI-Tecnalia** erakundeko zuzendari nagusiak “Berrikuntza irekia zeharreko ezagutza garatzeko” izenburuko praktika ona aurkeztu zuen.

Saioaren ondorioak hemen ikusi ditzakezu



## EKAINA

### EBALUAZIO KLUBEKO 900 PERTSONAK KUDEAKETA AURRERATUKO EREDUARI BURUZKO EZAGUTZA EGUNERATU DUTE



Aurten **900 pertsonak** eguneratu dute kudeaketari buruz duten ezagutza, **Kudeaketa Aurreratu**ko Eredua berria erreferentziatzen hartuta. **Ebaluazio Kluba**-ren urteko birziklapenean parte hartuz. Guztira **17 birziklapen saio** egin dira EAEko hiru lurraldeetan.

### 2015EKO BIKAINTASUN ZENTROEN-CEX SARIA

**ITP** Sari honetako finalista izan da, “Cuando los “Pequeños Detalles” se convierten en la clave para mejorar la satisfacción del cliente, lecciones aprendidas” praktika onaren bitartez. Aragoiko **BSH Electrodomésticos**ek lortu zuen Logroñon, **ADER-Errioxako Garapen Ekonomikorako Agentziaren** egoitzan, gauzatu zen V. edizio honetako **Saria**. ADER, CEXeko kidea da, EUSKALIT eta Estatuko bikaintasunaren promoziorako beste entitatetekin batera.

Gainerako finalistak izan ziren: **Room Mate Hotels** (Madril), **ARSYS** (Errioxa) eta **AMICA** (Kantabria).



## UZTAILA

### PIERBURG, EFQM EXCELLENCE AWARDean FINALISTA



**PIERBURG** euskal enpresak automobilgintzako osagaiak garatu eta ekoizten ditu, eta **EFQM Excellence Award (EEA)** sarietan finalista izendatu zuten, non kudeaketaren arloan aurreratuen dauden eta emaitzarik onenak lortzen dituzten Europako enpresak saritzen diren.

Sari banaketa **EFQMren** urteko **Foroan** egin zen, **Bruselan**, urrian, eta **bi Award winner** egon ziren, **BMW** (Regensburg) eta **WDH** (Erresuma Batua), **zortzi Prize winner**, horien artean **Bosch** (Portugal, Alemania eta Frantzia), **Coca Cola** (Turkia) eta **Sanitas hospitales** (Espania), eta **bost finalista**, horien artean 2013an ere **Urrezko Qa** lortu zuen **Pierburg**.

[Informazio gehiago](#)

## URRIA

### KUDEAKETA AURRERATUAREN EUROPAKO XXI. ASTEA



Aurtengo edizioa **urriaren 26tik azaroaren 6ra** egin zen, eta nobedade nagusia izan zen **Bilboko Euskalduna Jauregian** egin den **Biltzarra**, urriaren 26tik 30era, asteko egun bakoitza Kudeaketa Aurreratuaren elementuetako bakoitzari eskainita: estrategia, bezeroak, pertsonak, berrikuntza eta gizartea. Biltzarrean **30 ekitaldi** egin ziren, eta **1.600 pertsona** inguruk parte hartu zuten bertan, kudeaketaren praktika onak entzuteko eta konpartitzeko.

Horrez gain, Biltzarretik kanpo ere beste **30 ekitaldi** egin ziren, eta, ondorioz, aurtengo edizioan guztira **60 ekitaldi** egin dira, sektore guztietako **78 antolatzailek** moldatuta, eta guztira **3.400 pertsona** bertaratu dira.

## IRAILA

### LANKIDETZA HITZARMENA DEUSTO BUSINESS ALUMNIrekin

Jose San Blas **Deusto Business Alumniko** zuzendari nagusiak eta Fernando Sierra **EUSKALITeko** zuzendariak lankidetzaren hitzarmena izenpetu genuen, kudeaketaren inguruko kontzeptu, metodologia eta erreminta berriak hedatzeko eta sustatzeko helburuarekin.

Bi erakundeek hainbat lankidetzaren ildo betetzeko konpromisoa hartu dugu, hala nola hitzaldiak, mahai inguruak eta zuzendarien arteko topaketak elkarrekin antolatzea, enpresek beren kudeaketa hobetu eta lehiakortasuna indartu ahal izan dezaten. Baita praktika onen eta kasu arrakastatsuen adibidez hornitutako dokumentuak lantzea eta zabaltzea ere, beste pertsona eta erakunde batzuek esperientzia horiek ezagutu eta irakaspenak atera ahal izan ditzaten.



### EUSKAL ENPRESETAN BERRIKUNTZAREN KULTURA BULTZATU

**AEC-Kalitatearen Espainiako Elkarteak, Innobasquek eta EUSKALITek** lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, euskal enpresetan **Berrikuntzaren Kultura** bultzatzeko. Giro berritzaileko inkesta batean oinarritutako azterketa bat da, **barne benchmarka** (arloan artekoa, prozesuen artekoa...) eta **kanpo benchmarka** lortzeko, parte hartzen duen enpresaren berrikuntzaren koizientea eta sektorearena eta azterketaren maila globalarena alderatzeko.

Hitzarmena **"Berrikuntzaren kultura erakundeetan: esperientzia nabariak"** izeneko jardunaldian sinatu zen, **Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astearen** esparruan, eta bertan parte hartu zuten **Marta Villanueva** AECko zuzendari nagusiak, **Txema Villate** Innobasqueko zuzendari nagusiak eta **Fernando Sierra** EUSKALITeko zuzendariak.



Zure enpresak azterketan parte hartzeko interesa badu, hemen duzu informazio gehiago: **AEC (tel. 915 752 750) Manuel Hervás**, edo bisitatu [www.culturainnovacion.com](http://www.culturainnovacion.com)

## NAFARROAKO BIKAINTRASUNERAKO FUNDAZIOA ETA EUSKALIT, HURBILAGO



Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioak eta EUSKALITek aliantza estrategiko bat izenpetzea aurreikusi dute, bi erakundeen arteko lankidetzara are handiagoa eta koordinatuagoa errazteko eta, batez ere, nafar erkidegoan Kudeaketa Aurreratuaren Eredua sustatzeko.

Aipatu aliantza Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko Departamentuarekin egindako bilera batean planteatu zen, bertan izan zirelarik Manu Aierdi Ekonomiako lehendakarioordea, Yolanda Blanco Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusia, Jose Ignacio Larretxi Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioko lehendakaria, eta horko zuzendari Marino Barasoain. EUSKALITen aldetik, berriz, Josetxo Hernandez presidentea eta Fernando Sierra zuzendaria izan ziren.

## SEI ERAKUNDE QUALITY INNOVATION OF THE YEAR LEHIAKETAN FINALISTA

Enpresa finalistak Quality Innovation of the year 2015 lehiaketan:

- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK: A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGÍA
- SEKTORE PUBLIKOA ETA IRABAZI ASMORIK GABEAK: TKNIKA
- ENPRESA HANDIAK: SORALUCE S. Coop.
- BERRIKUNTZA GIZARTE ETA OSASUN SEKTOREAN: VICOMTECH
- BERRIKUNTZA HEZKUNTZA SEKTOREAN: URKIDE IKASTETXEA
- BERRIKUNTZA POTENTZIALA: OSAKIDETZA

EUSKALITek lehendabiziko aldiz jardun du lehiaketan, zeinak bi fase dituen, bat bertakoa eta bestea nazioartekoa. Bertako faserako guztira 23 hautagai jaso dira. 23 hautagai horietatik, 15 pertsonak osatutako ebaluazio talde batek 12 finalista hautatu zituen. Eta 12 horiek, hurrengo balioztapen fase batera igaro



ziren, UNIBASQ, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak identifikatutako berrikuntzako adituen batzorde batekin. Azkenik, EUSKALITeko Patronatuko erakundeek kudeaketa eta berrikuntzari buruzko hainbat adituk eta Innobasquekoek osatutako Epaimahaiak euskal fasearen sei irabazleak aukeratu zituen.

Erakunde horiek finalista dira dagoeneko nazioarteko mailan, eta epaimahai batek hautatuko ditu Quality Innovation of the Year 2015eko irabazleak; datorren urtarrilaren 27an ezagutaraziko dira irabazleak, Estoniako hiriburuan, Tallinen, egingo den sari banaketan.

## KUDEAKETA AURRERATUARI EUSKAL SARIA



Hogei erakundek jaso zituzten abenduaren 9an, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuari Sariak, brontzezko, zilarrezko eta urrezko A-k, 1.200 pertsonarekin egindako ekitaldian, Iñigo

Urkullu lehendakariak eta EUSKALITeko lehendakari Jose Hernandezek presidituta.

Gainera, bertan izan ziren ere Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburu Arantxa Tapia, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburu Cristina Uriarte, Osasuneko sailburu Jon Darpon eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Angel Toña.

Aurten, halaber, sektore guztietako 52 erakunderi Kudeaketa Aurreratuaren Diploma eman zaie, 2015ean EUSKALITen kanpo Kontrastearen zerbitzua gainditu dutelako.

### SARITUAK 2015ean

	URREZKO A	ZILARREZKO A	BRONTZEZKO A
<b>Industria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fundación Azti</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fundación Centro de Tecnologías De Interacción Visual y Comunicaciones-Vicomtech</li> <li>• Virtualware Group</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• A&amp;B Laboratorios de Biotecnología</li> <li>• Grupo Idesa XXI, S.L.</li> </ul>
<b>Zerbitzuak</b>			<ul style="list-style-type: none"> <li>• Empresa Técnica de Gestión Deportiva-Emtesport, S.L.</li> </ul>
<b>Osasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mutualia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bidasoa Erakunde Sanitario Integrata/Organización Sanitaria Integrada Bidasoa-Osakidetza</li> <li>• Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea/Red de Salud Mental de Bizkaia-Osakidetza</li> </ul>	
<b>Hezkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• San Felix Ikastetxea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• FEFC Ntra. Sra. del Rosario</li> <li>• Helte Heziketa Teknikoko Elkarte</li> <li>• Ikasbide Ikastetxea</li> <li>• Ikerbasque</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Colegio Ángeles Custodios</li> <li>• Colegio Basauri Sociedad Cooperativa de Enseñanza</li> </ul>
<b>Gizarte zerbitzuak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Centro de Acogimiento Residencial Stella Maris</li> <li>• Zestoako San Juan Fundazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorikintza Elkargoa/Fundación Etorikintza</li> </ul>
<b>Herri Administrazioa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eje, S.A. Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco</li> </ul>	




# BESTE GERTAERA BATZUK

- ▶▶ **Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Osakidetza.** Osasun Aseguramendu eta Kontrataziorako Zuzendaritzari lagundu diogu Osakidetzako zentronen programa kontratuko ebaluazioetan. Bestalde, **Osakidetzako sareak**, kudeaketa hobetzeko bere ibilbide luzean jarraituz, Kudeaketa Aurreratuaren Eredu berriarekin buru-belarri lan egingo du.



- ▶▶ **Aurrerabide: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak (DACIMA), IVAPek eta EUSKALITek** parte hartzen dugu 2014-2017 urte askoko programa honetan, Eusko Jaurlaritzan eta bere Erakunde Autonomoetan Kudeaketa Aurreratu bultzatzeko. Orain arte **Eusko Jaurlaritzaren antolamenduko 92 unitatek** parte hartu dute, guztira **747 pertsonak**.



- ▶▶ 2016an **Innobideak-Kudeabide programa** babesten jarraituko dugu, **Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien, SPRIren eta EUSKALITen** erakundearteko hitzarmenaren emaitzaren ondorioz. Programak bi fase ditu: enpresa

parte hartzaileek kanpo kontraste bat egiten dute gure **Ebaluazio Klubaren** laguntzarekin. Eta, ondoren, hobetzeko detektatzen diren arloen arabera, enpresek aukera dute kudeaketa metodologiak ezartzeko **ezarpenerako proiektuak eskatzea**, bai KnowInn gure metodologiaren bitartez, bai kanpo aholkularitza baten laguntzaz (SPRI edo Foru Aldundiei eskatuta).



**BALANCE DE 2014-2015:**



- ▶▶ **Beaz, Cebek, Deusto Business Alumni eta EUSKALITekin** lankidetzan gaude mentoring enpresarialeko zerbitzu berria abiarazteko, **Bizkaia Mentoring Network** izenburupean. Helburua da mentore profesionalen sare bat osatzea, pertsona ekintzaileei eta enpresa txiki eta ertain berritzaileei hazteko ahalmen handia duten proiektuak garatzen laguntzeko. Laguntasunaren helburua proiektuak bizkortzea da, baina baita ere bi aldeentzako harreman eraikitzailea lortzea. Mentore baten laguntasuna nahi baduzu, edo mentore izan nahi baduzu, BEAZekin harremanetan jar zaitezke. <http://beaz.bizkaia.eus/es/contactar>



# 2015eko JARDUEREN LABURPENA

## ZABALKUNDEA

**130** ekitaldi sentsibilizatzeko eta praktika onak elkartrukatzeko **6.000** parte hartzaile



**60**

ekitaldi Euro-pako Astean

**3.400**

parte hartzaile

**400 Klubaren eta 5S Klubaren Praktika Onak elkartrukatzeko ekitaldiak**



## EKINTZA

**1.500** erakunde baino gehiago ekintza programetan

**3.300** parte hartzaile baino gehiago

KnowInn, kudeaketarako metodologiaren ezarpena

**415**

erakunde

**1.135**

persona metodologiak beren enpresetan ezartzen

Prestakuntza Directiv@ 21

**48** saio

parte hartzaile

**750**

Praktika Onak Elkartrukatzeko Talde Aurreratuak

hezkuntza, industria, kirol eta zerbitzuen sektoreetako

**70**

erakunde

5S Kluba

**70** erakunde

**380** parte hartzaile



Saltokitik enpresara

**208**

denda Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritzak sustatutako programan partaide

Q-epea

**28**

erakunde

**220**

pertsona Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen ekitaldian

**3K**

**71**

kirol erakunde partaide kirol erakundeak hobetzeko programan, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuta.

Osasuna

zuzendaritza taldeei eta zuzendari nagusiei kudeaketa aurreratuako programa kontratuaren ebaluazioan eta prestakuntzan laguntzeko.

**13 erakunde**

parte hartu zuten diagnostiko eta ebaluazioetan

## EBALUAZIOA

**300** erakunde ebaluatuta edo diagnostikatuta

**2.500** pertsona bateko eta beste Ebaluazio Klubetan

**187**

Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekin

**115**

Innobideak-Kudeabide programakoak

5S - Produktibitate gehiago eta lantoki hobea

**23**

erakunde

Zerbitzu karta (Q-epea)

**8**

entitate

Bikain

Hizkuntza Kudeaketaren Kalitatearen Ziurtagiria

**65**

erakunde





KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA

Teknologi Parkea, 206 A  
48170 ZAMUDIO  
T: 94 420 98 55  
[euskalit@euskalit.net](mailto:euskalit@euskalit.net)